

Zangoza / 2025

KULTUR AGENDA

abendua



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
SANGÜESA ZANGOZA KULTUR ETXEA
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko eta Erakusketa aretoko ordutegia: asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Abenduaren 24an (arratsalde), 25ean eta 31n (arratsalde) Kultur Etxea itxita egonen da.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: abenduaren 2tik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. Ikuskizunaren egunean online salmenta jarduera hasi baino bi ordu lehenago amaituko da.

Informazio-telefonoa: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoan (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik.

Telefonoa: 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak.

Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948 870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

KULTUR AGENDA

abendua



- | | | | |
|----|----|--|----------------------|
| 1 | Al | Erakusketa. «ONG y os lo Cuento: realidades olvidadas»
(abenduaren 7a bitarte) | 4. orr. |
| 2 | As | Ipuin kontalaria. «Ipuinez blai»
Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 8. orr.
10. orr. |
| 3 | Az | «BeleneAndo» | 10. orr. |
| 4 | Og | | |
| 5 | Os | | |
| 6 | La | Antzerkia. «Solo para Paquita» | 5. orr. |
| 7 | Ig | Bakarrizketa. «Aa Aita» | 5. orr. |
| 8 | Al | | |
| 9 | As | | |
| 10 | Az | Ipuin kontalaria. «Navidad Ninja» | 8. orr. |
| 11 | Og | | |
| 12 | Os | Erakusketa. «Misterio de Reyes: 125 años, 125 urte»
(urtarrilaren 4a bitarte) | 4. orr. |
| 13 | La | Antzerkia eta flamenkoa. «El cántaro de Carmen» | 6. orr. |
| 14 | Ig | Zinea. «Robot salvaje» | 9. orr. |
| 15 | Al | Musika Eskolako ikasleen kontzertua | 10. orr. |
| 16 | As | | |
| 17 | Az | Gabonetako tailerra | 9. orr. |
| 18 | Og | Musika Eskolaren Eguberriko Kontzertua | 10. orr. |
| 19 | Os | Erakusketa. «Eguberriko haur-lanen erakusketa»
(urtarrilaren 4a bitarte)
Gabon-kanten kalejira | 4. orr.
11. orr. |
| 20 | La | Pregoia, Jaiotza bedeinkatzea eta irekitzea
Gabonetako kontzertua. Nora abesbatza | 11. orr.
11. orr. |
| 21 | Ig | Haurrendako antzerkia eta musika euskaraz.
«Bisonte-mastodontearen bila» | Pág. 6 |
| 22 | Al | | |
| 23 | As | Gabonetako tailerra
Nora Abesbatzaren kontzertua Zahar-etxean
eta kalejira | 9. orr.
11. orr. |
| 24 | Az | Olentzero | 12. orr. |
| 25 | Og | | |
| 26 | Os | | |
| 27 | La | Udal Banda Elkartearen Gabonetako kontzertua | 12. orr. |
| 28 | Ig | | |
| 29 | Al | | |
| 30 | As | Antzerkia eta xaboi-burbuilak. «El vendedor de jabón» | 7. orr. |
| 31 | Az | | |

Azaleko irudia: «Solo para Paquita». La Nave Teatro

**KULTUR ALORRETIK OSASUN HANDIA OPA DIZUEGU ETA
2026A KULTURA HANDIZ BETERIK ETORTZEA.**

Erakusketak



«ONG Y OS LO CUENTO: REALIDADES OLVIDADAS»

ABENDUAREN 7RA BITARTE

«Y os lo cuento» Nafarroako GKE bat da, osasun, hezkuntza eta oinarriko zerbitzuak emateko helburuekin Garapenerako Lankidetzaren proiektu desberdinak burutzen dituen, eta bere helburu nagusietariko bat ahaztutako errealitateak ezagutaraztea da.

Argazki erakusketa honen bidez, Haitin, Kenyan, Guatemalan, Ekuadorren, Sierra Leonan eta beste askotan egin dituen proiektuetara joko dugu.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«MISTERIO DE REYES: 125 AÑOS, 125 URTE»

ABENDUAREN 12TIK URTARRILAREN 4RA

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzailea: Erregeen Misterioa Elkarte.

Laguntzaileak: Henrike II.a Albretekoa Kultur Taldea, Zangozako Jaiotzazaleen Elkarte, Zangozako Udaren Kultur Alorra eta Nafarroako Gobernua.



EGUBERRIKO HAUR-LANEN ERAKUSKETA

ABENDUAREN 19TIK URTARRILAREN 4RA

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzaileak: Oti 3 urtera bitarteko zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa eta Zangozako Ikastola.

Erakusketa aretoko bisita-ordutegia:

asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak eta musika Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA

«Solo para Paquita»

LA NAVE TEATRO

LARUNBATEAN, ABENDUAK 6

Zuzendaria: Luis. F. Jiménez.

Antzerkilariak: Marta Juárez eta Gustavo Charles.

Paquita beste anitz bezalako emakumea da, bizitza berezirik gabea. Protagonista, andre komikoa eta tragikoa, katu-emakume sentsuala da, gizarteaz trufatzen dena. Berak uste du gu guztiok gaixo gaudela zentro terapeutiko batean giltzapeturik, non gure ahulezia psikikoak uxa genitzakeen, beldurrik eta konplexurik gabe, azkenean aske bizitzeko.

Gazte eta helduendako.

Iraupena: 70 minutu. **Ordua:** 19:30.

Aldez aurreko salmenta: 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.

Sarrerak Gazte txartelarekin: 5 €. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean, bai sarrera aretoan bertan erosten bada, bai internet bidez erosten bada.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarteak eta Nafarroako Gobernua.



EUSKARAZKO BAKARRIZKETA

«Aa Aita»

JON PLAZAOLA

IGANDEAN, ABENDUAK 7

Aitatasuna izanen da komedia honen ardatza eta aitzakia norberaren patetismoaz eta ergelkeriaz hitz egiteko, eta, jakina, besteen patetismoan eta ergelkerian sakontzeko.

Gazte eta helduendako.

Iraupena: 60 minutu. **Ordua:** 19:00.

Aldez aurreko salmenta: 6 €. **Txartel-leihatilan:** 8 €.

Sarrerak Gazte txartelarekin: 5 €. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean, bai sarrera aretoan bertan erosten bada, bai internet bidez erosten bada.

Antolatzaileak: Cederna eta Nafarroako Gobernua (Euskarabidea).

Laguntzaileak: Zangozako Udalaren Kultur Arloa eta Nafarroako Antzoki Sarea.

Arte eszenikoak eta musika

Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA ETA FLAMENKOA

«El cántaro de Carmen»

CÍA MANUELA RODRIGUEZ

LARUNBATEAN, ABENDUAK 13

Zuzendaria: Lola Rodríguez.

Interpretatzaileak: Rosa Beunza (Aktorea), Lola Rodríguez (Aktorea), Lorena Jiménez (Ahotsa), Elsa Autor (Ahotsa eta pianoa), Bruno Jiménez (Gitarra), Rico Muñoz (Perkusioa).

«Carmenen pegarra» Lola Rodriguezek idatzi, zuzendu eta ekoitzitako lana da. Antzerkia eta zuzeneko musika flamenko berria batzen ditu.

60ko hamarkadako Extremadura sakonean giroturiko istorioa da. Carmen, 34 urteko emakume ezkondua, eta Curro, 18 urteko bere bizilagunaren semearen arteko ezinezko maitasun istorioa. Lola Rodriguezek, Nafarroak alabatzat hartutako egileak, jaiotzez Extremadurakoak, garai hartako landa-ohiturak jasotzen ditu.

Gazte eta helduendako.

Iraupena: 70 minutu. **Ordua:** 19:30.

Sarrera: 8 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernu.



HAURRENDAKO ANTZERKIA ETA MUSIKA EUSKARAZ

«Bisonte-mastodontearen bila»

ENE KANTAK

IGANDEAN, ABENDUAK 21

Zuzendaria: Jaione Urtasun Izal.

Interpretatzaileak: Garazi San Martin Boj, Jon Zubiaga Barrena, Ainara Unanua Arizmendi, Irati Lizarraga Osta, Uxue Rodriguez Etayo.

Suaren inguruan lo egin ondoren jaiki dira: taldea prest dago ehizara joateko. Oraingoan

Arte eszenikoak eta musika

Karmengo Entzunaretoan



bai, oraingoan harrapatuko dute bisontea. Isiltasuna nagusi, taldean doaz. Denak erne, bisonteari so. Prest daude, geziak bizkarretik hartu... O! ez, Axeri! Aire, Asto, Sator, Oki eta Axeri harrapatuko ote dute Bisonte mastodontea? Ala Bisonte mastodonteak harrapatuko ditu bost lagunak?

Ikusleak: Sendiak eta haurrak.

Iraupena: 75 minutu. **Ordua:** 18:00.

Aldez aurreko salmenta : 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Antolatzailea: Cederna eta Nafarroako Gobernua (Euskarabidea).

Laguntzailea: Zangozako Udalaren Kultur Arloa eta Nafarroako Antzoki Sarea.



ANTZERKIA ETA XABOI-BURBUILAK

«El vendedor de jabón»

COMPAÑÍA TEATROS MÁGICOS

ASTEARTEAN, ABENDUAK 30

Zuzendaria: Massil Allache.

Interpretatzailea: Massil Allache.

Gure istorioa Frantziako baso txiki baten kanpoaldean hasi da, XVI. mendean. Baso horretan xaboi-saltzaile gazte bat bizi zen etxola txiki eta goibel batean. Gau batean, ekaitz handi batek ustekabeen harrapatu zuen gure xaboi-saltzailea, eta pixkanaka, bere irudimena erabiliz, xaboi-burbuilak nola egin asmatu zuen. Lurrun-burbuilak, koloretakoak, kearekin, 3 metro baino gehiagokoak e.a. dituen ikuskizuna, helduak eta umeak harrituko dituen.

Ikusleak: 4 urtetik gorako haurrak eta sendiak.

Iraupena: 50 minutu. **Ordua:** 18:00.

Aldez aurreko salmenta : 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzailea: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



Ipuin kontalaria



«Ipuinez blai»

(Euskarazko ipuin kontalaria)

AINARA UNANUA

ASTEARTEAN, ABENDUAK 2

Euria ari duenean zenbat gauza egiten ditugun gustora: katiuskak jantzi, putzuetan salto, goitik behera busti... Baina uraren ordez ipuinekin blai eginda bukatzen dugunean ere, putzuetan salto egiteko aukera izaten dugu eta bertze hainbortze istoriorekin gozatzeko aukera ere... Ea oraingoan nolako putzuak aurkitzen ditugun. Prest?



«Navidad Ninja»

(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

DIVERXA.CRISTINA MARTINEZ

MIÉRCOLES 10 DE DICIEMBRE

Gabon hauetan benetako elur-bolen bataila prestatzen ari da. Eta zer egingen du Santak neguko erronka honen aurrean? Jakin ezazu eta ez galdu ekintza!

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak.
Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Sarrera doan edukiera bete arte.

Ordua: 18:30.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Zinea



«Robot salvaje»

IGANDEAN, ABENDUAK 14

Animazioa.

Zuzendaria: Chris Sanders.

Robot baten bidaia epikoa, Roz-en 7134 unitatea, 'Roz' laburtzeko. Bere ontzia hondoratu eta gero, inor bizi ez den uharte batera ailegatuko da eta ingurune gogorrera egokitzen ikasi beharko du, gutxika uharteko animaliekin harremanak sortuz eta umezurtz antzar txiki bat semetzat hartuz.

Ikusleak: ez zaie gomendatzen 7 urtetik beherakoei.

Iraupena: 98 minutu. **Ordua:** 18:00.

Sarrera: 3 €.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Gabonetako tailerrak



«Leihoetarako gabonetako apaingarriak»

(gaztelaniazko tailerra)

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 17

Irakaslea: Yanira Calvo, artista plastikoa.

«Zuhaitzerako gabonetako apaingarriak»

(Euskarazko tailerra)

ASTEARTEAN, ABENDUAK 23

Irakaslea: Estitxu Larrea, artista plastikoa.

Partaide-kopurua: 12.

Partaideak: 4tik 8 urtera.

Izen-ematea: doan 948 870 251 telefonoan edo infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan.

Ordutegia: 18:30etik 20:00etara.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.



Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



ZANGOZAKO «JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN» MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN GANBERA-MUSIKAKO KONTZERTUA

ASTEARTEAN, ABENDUAK 2

ASTELEHENEAN, ABENDUAK 15

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Eguberriak



«BeleneAndo»

**ABENDUAREN 3TIK
URTARRILAREN 6RA**

Gabonetako jarduera, Zangozako karriketan zehar ibilbide bat proposatzen duena, leku publikoetan, dendetan eta etxe partikularretan jaiotza ezberdinak aurkituz. Usadio polit honen bidez gure herria ezagutzeko beste modu bat.

Lekua: Zangozako karrikak.

Jarduera hau partikularren, saltokien eta Zangozako Jaiotzazaleen Elkartearen parte-hartzeari eta lankidetzari esker egin da.

Laguntzailea: Zangozako Udala.



Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolaren Eguberriko Kontzertua

ORKESTRA, BIG BAND ETA BANDA TXIKIA

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 18

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.

Eguberriak



Musika Eskolako Bandaren eta Udal Banda Elkartearen Gabon-kanten kalejira

OSTIRALEAN, ABENDUAK 19

Ordua: 20:00. Irteera Arkupeetatik.

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.



Pregoa, Jaiotza bedeinkatzea eta irekitzea

LARUNBATEAN, ABENDUAK 20

Abatetxeko plazako jaiotza bedeinkatu eta Gabonak Zangozan hasiko dituen pregoiaren ondoren, «Gabonak Zangozan» mikrokontakizun eta marrazki lehiaketako sariak banatuko dira.

Ordua: 18:00.

Lekua: Abatetxeko plaza.

Antolatzailea: Erregeen Misterioa Elkartea.



Asociación MISTERIO de REYES de Sangüesa/Zangoza



Gabonetako kontzertua

NORA ABESBATZA

LARUNBATEAN, ABENDUAK 20

Ordua: 19:00.

Lekua: Aita Kaputxinoen Eliza.

Antolatzailea: Nora Abesbatza.

Kontzertua Zahar-etxean eta kalejira

NORA ABESBATZA

ASTEARTEAN, ABENDUAK 23

Ordua: 17:30.

Antolatzailea: Nora Abesbatza.

Eguberriak



Olentzero

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 24

18:00etan Arkupeetan txokolatada, bizkotxoa, gaztainak eta ardo errea.

18:30ean Liburutegitik Praura kalejira joaldunekin, akordeoiekin, dantzari txikiekin, txistulariekin eta gaiteroekin.

18:45ean Joaldunen ongietorria Olentzero eta Mari Domingiri.

18:50ean Olentzero eta Mari Domingiri harrera Praun. Dantzari txikien dantza.

19:00etan Arkupeetara jaistea.

19:15ean Porrusalda dantza Arkupeetan.

19:20an Olentzero eta Mari Domingiri harrera Arkupeetan. Ondoren, hurrekin egoteko unea izanen da.

20:00etan Olentzerori eta Mari Domingiri agurra eta saskien zozketa.

Antolatzaileak: Zangozako Ikastola, Luis Gil Ikastetxeko APYMA, Kurriños eta Bi Haizetara Euskara Taldea.



Gabonetako kontzertua

UDAL BANDA ELKARTEA

LARUNBATEAN, ABENDUAK 27

Zangozako Udal Musika Bandaren ohiko kontzertu honetan, Alfred Reed amerikarraren, Philip Sparke ingelesaren eta Guardiako (Araba) Eduardo Morenoren jatorrizko obrak entzunen dira.

Berritasun gisa, bigarren zatia bi urteurreni dago eskainia, bi musikarien obrek: Johann Strauss II .aren jaiotzaren 200 urte eta Dmitri Shostakóvichen heriotzaren 50. urteurrena. Hori dela eta, ezohiko tresnak gehituko dira Bandako kideen artean.

Zuzendaria: Imanol Blasco.

Ordua: 19:00.

Iraupena: 75 minutu.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrera: 5 €.

Antolatzailea: Udal Banda Elkartea.